

Galdera

Eman dezagun euskaraz idatzi nahi dugula honako eskaintza hau: «para mi madre Marisa Vendrell». Euskaraz, «nire ama Marisa Vendrellentzat» edo «nire ama Marisa Vendrell-entzat»? Zein da egokiena?

Erantzuna

Vendrell izena ez da ezohikoa, eta nahasgarria ez den aldetik, **Vendrellentzat** idatziko genuke.

1/ Ikus dezagun, dena dela, IRALeren Estilo-liburuaren lehen atala, [Ortotipografia](#), [Erdal izen bereziak](#) kapitulua, 3. puntua, 31. orrialdean:

3. Nahasgarri gerta daitezkeen erdal izen bereziak

a) Deklinabide-atzizkirik gabe idatzi pasarteko lehen aipamenean.

HASIERAN	GERORA
Koike hizkuntzalaria	Koikek idatzitako tesia
Dzierzanowska poloniarra	Dzierzanowskarentzat

b) Pasarteko lehen aipamenean izenaren eta deklinabide atzizkiaren artean marratxoa jarritz ere konpon daiteke arazoa (bereziki “-r” letraz amaitutakoetan). Ikus 53. or.

Dzierzanowska-rentzat oso esanguratsua da Koike-k idatzitako tesia.

Pasteur-en aurkikuntza goraipatu zuen Letelier-ek.

2/ Orobat IRALeren Estilo-liburuaren lehen atala, [Ortotipografia](#), [Marratxoa](#) kapitulua, 5. puntua, 53. orrialdean:

5. Izen berezien kasuan, beharrezkoa ez denean, marratxorik ez erabiltzea gomendatzen da. Nahasgarri gerta daitezkeen izen berezien arazoa bi eratarik konpon daiteke:

a) Deklinabide-atzizkirik gabe idatziz pasarteko lehen aipamenean, izena zein den argi uzteko.

HASIERAN	GERORA
Jon gureak esandakoa	Jonek esandakoa
Jone gureak esandakoa	Jonek esandakoa
Lafitte euskaltzainaren iritziz	Lafitteren iritziz
Lagun Onak taldeko jokalaria	Lagun Onakeko jokalaria

b) Izenaren eta deklinabide-atzizkiaren artean marratxoa jarritz pasarteko lehen aipamenean.

HASIERAN	GERORA
Jon-ek esandakoa	Jonek esandakoa
Jone-k esandakoa	Jonek esandakoa
Lafitte-ren iritziz	Lafitteren iritziz
Lagun Onak-eko jokalaria	Lagun Onakeko jokalaria

3/ Gehiago jakiteko, begiratu [Euskara Batuaren Eskuliburua](#), [Izen berezi batzuen deklinabide-arazoak](#).